

IPARRALDEKO MENDIAK

BIZKAIA



B•18 Ganekogorta mendia

Ganekogorta mendi izugarritik Bizkaiko mendebaldeko eremu zabal bat dago ikusgai; oinaldean Bilbo eta horren eragin-eremu jendetsua daude, eta bertako biztanleentzat Ganekogortako gunea aisialdirako eta lasaialdirako eremu garrantzitsua da.

Inguru honetako jatorrizko basoak erabat aldatu dira eta, gaur egun, mendi-hegaletan, *Intsinis pinuaren* sailak dira nagusi, hostozabal autoktonoen enklabe urri batzuekin nahasirik. Aldiz, goialdean larreak zabaltzen dira, inguru honetan erabiltzen den abeltzaintza estentsibo ugariaren mantenu.

Gizakiaren ekintzak paisaia aldatu arren, gune honetan basoko inguruneari dagozkion fauna-komunitate batzuk bizi dira, eta baita oso ohikoak ez diren beste batzuk ere, adibidez, oro-muxarra, basakatua eta, salbuespen gisa, orkatz bat.



B•19 Oiz mendia

Egun argitsuetan, Bizkaiko bost mendi nagusietako bat dugun Oiz mendiaren gailurretik, ia Lurralde Historiko osoa barnean hartzen duen ikuspegi paregabean begiztatzen da: Durangaldeko mendien gailurrak, Gorbeia, Urdaibai eta itsasoa. Gune hori artzaintzaren kokaleku gisa garrantzitsua da historiaurretik, eta horren froga ditugu bere hegaletan sakabanatuta dauden aztarna megalitiko ugariak; izan ere, mendi-hegal horiek ia guztiz deforestatuta daude antzina-antzinatik larre-eremuak sortzeko erabilitako suaren ondorioz. Behe-sasiak eta bazkalekuak nagusi diren paisaian zenbait erreka eta enklabe heze nabaritzen dira, gure lurraldean ezohikoak diren hainbat espezierekin; esate baterako, baso-igel iberiarra eta ur-zozoa.

Eremu horren gaineko eragin nagusiak dira bere tontorra zuinkatzen duten antenak, txangozale-kopuru handia (gailurrera iristea erraza dela eta batzuk motorrean), eta dagoen parke eolikoak.